

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pilar Beriain Taberna

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1934)*

Aurkibidea



Biografia



Hamar urte zituela etorri zen Pilar Errenteriako Oleta baserrira, izeba-osaben etxera, Ibarratik. Ibarrako gurasoek Fraisoron jaso zuten Pilar eurek hazi eta hezteko. Eskolan Ibarran ibili zen, oso gutxi. Oletara etorrita lanean aritzen zen egun osoan, baserrian, jolasteko ere tarterik gabe. Izebarekin batera merkatura jaisten zen esnea eta barazkiak saltzera. Berak hemezortzi urte zituen hil zen izeba eta baserriko lan asko berak egiten zituen. Oleta ondoko Etxetxiki baserrian bizi zen Joxe Antonio Ezeizarekin ezkondu zen eta Etxetxikin jarri ziren bizitzen, senarraren baserrian. Senarrak Iberdueron egiten zuen lana eta txekor batzuk hazten zituzten gero saltzeko. Bi alaba izan zituzten. Ezkonduz geroztik Etxetxikin bizi izan da Pilar.

Zintak

ERR-031

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-05-11
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Oletan gizaseme asko eta emakume gutxi

- **Erref:** ERR-031/003
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:05:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Pilar hamar urterekin etorri zen Errenteriako Oleta baserrira bizitzera, izeba-

osaben etxera. Bost seme zituzten Pilarren izeba-osabek eta aiton amonak ere Oletan bizi ziren. Artzain batzuek ere negua igarotzen omen zuten bertan. Makina bat talo erretakoa da Pilar, Oletan biltzen zen jende guztiarentzat. Izeba eta Pilar bera ziren Oletako emakume bakarrak eta lan asko egina dela kontatzen du.

2. Hamazazpi urte zituela ama azaldu

- **Erref:** ERR-031/004
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:05:54. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Erreterriako Oleta baserrian osaba-izebekin bizi zela, Pilarren ama azaldu omen zen, alaba erreklamatz. Hamazazpi urte zituen orduan Pilarrek, adin nagusitasuna erdietsi gabea, beraz, eta amarekin joan behar izan zuen, gogoaren kontra, Lesakara. Zortzi egun negar malkotan igaro ondoren, Oletara bidali zuten bueltan.

3. Soldaduen otorduak Ibarako plazan

- **Erref:** ERR-031/006
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Txikia zen Pilar gerra zibila piztu zenean, baina ongi gogoan ditu soldaduen otorduak, herriko plazan.

4. Hamar urte betetzerako lanean

- **Erref:** ERR-031/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:13:56. **Bukatu:** 00:16:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Hamar urte betetzerako lana beltz egitea tokatu zitzaion Pilarri. Oheak egin, sutarako egurra garraiatu... Anaiordeen artean adinkiderik izan arren, ez zuen Pilarrek jostaketarako tarte handirik izaten. Erreterriara jaitsi behar izaten zuen ere, plazara, barazkiak saltzera.

5. Baserritik plazara karroan zein astoarekin

- **Erref:** ERR-031/011
- **Iraupena:** 0:06:26. **Hasi:** 00:17:52. **Bukatu:** 00:24:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Pilar bakar-bakarrik jaisten zen Oleta baserritik Erreterriako plazara. Batzuetan karroan, astoarekin bestetan. Oletan, barazkiaz gain, fruta omen zen asko eta ona. Igandetan jende asko ibili ohi zela dio Pilarrek. Halakoetan egiten zituzten tratu onenak eta salmenta oparoenak.

6. Zekorrek esnea du pentsurik onena

- **Erref:** ERR-031/012
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 00:24:18. **Bukatu:** 00:28:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

23 urterekin ezkondu eta tratura plazara jaisteari utzi zion Pilarrek. Aziendarekin lanean aritzeari lotuko zitzaion gero, ordea, eta zekorrek hazten jardun zuen, senarrarekin batera. Egun utzita dituzte eginbehar horiek, pentsua ikaragarri garestitu zelako eta halako lanetan etekinik ez zelako. Pilarrek azaldu digu, bidenabar, zekorrek elikatzen ibili eta hiltegira heldu bitarteko prozesua nola izaten zen.

7. Gaztetan adabakiak josten; ezkondu ondoren soinekoak

- **Erref:** ERR-031/014
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:31:08. **Bukatu:** 00:34:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Erreterriako Olaziregi botikaren gaineko pisu batean ikasi zuen josten Pilarrek. Etekin handia atera zien ikasketa haiei, bai eta etxeko josteko makina zaharrari ere, alabei soinekoak josten baitzizkien, eta egun ere ibiltzen baita bateren zein bestearen gutiziak betetzen. Puntua egiten ere ikasi zuen, eta asko ibilia da horretan ere.

8. Ezkontzako dotea neska koskorretan prestatzen

- **Erref:** ERR-031/015
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:34:48. **Bukatu:** 00:36:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Pilarrek gogoan du, izebek esaten ziotela, eurak neska koskorrek zirenerako hasten zirela dotea prestatzen. Izan ere, ezkongabe izatea ez

baitzegoen ondo ikusia, eta denen burutan omen zegoen ezkontzea, noiz edo noiz. Pilarri osabak erosi omen zizkion doterako behar izango zituenak, Erreterian.</p>

9. Soineko beltzarekin ezkondu

- **Erref:** ERR-031/016
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:36:41. **Bukatu:** 00:39:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Erreterriako parrokiari ezkondu zen Pilar. Senideak joan ziren bazkaltzera, eta lagun bat edo beste. Soineko beltzarekin ezkondu zen Pilar.

10. Espartin eta abarkekin egunero

- **Erref:** ERR-031/017
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:39:48. **Bukatu:** 00:41:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Espartinak laster urratzen omen ziren eta abarkekin gehiago ibilia da Pilar. Gogoan du, igandetan, mezetara joan behar zutenetan, baserritik Erreterria arteko bidea abarkekin egiten zutela, eta behin herrira ailegatuta oinetakoak nola aldatzen zituzten, elizan zapatekin sartzeko.

11. Gaizki hezitako haurra gurasoen errua da

- **Erref:** ERR-031/019
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:44:35. **Bukatu:** 00:47:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Kezka handia azaltzen du Pilarrek egungo haurren heziketarekiko. Batere errespeturik gabe sumatzen ditu gazteak, eta gurasoak, sarritan, haurraren beraren beldur.

12. Zabalbide ingurua asko aldatu da garai batetik hona

- **Erref:** ERR-031/020
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:47:16. **Bukatu:** 00:51:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Pilarren iritziz oso zaila dago gaur egun baratzeak ematen duena saltzetik bizitzea. Udalek diru asko eskatzen omen dute herriko plazan postua jartzeagatik. Gainera, egun, edonon dago barazkiak erosteko aukera, nahiz eta kalitateari erreparatuta, tokian tokiko baserrian ekoiztutakoa bezalakorik inon ez dagoen. Garai batean ez omen zen egungo errepide eta zubirik. Hala ere, Pilarren ustez, halakoak eraikitzearen kontra azaltzea alferrik omen da. Horiek altxatzeko dirua beti izaten da.

13. Egun ezin da baserriko lanari soilik emanda bizi

- **Erref:** ERR-031/022
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:52:37. **Bukatu:** 00:54:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etiket kanpo lana edukita, etxerako izaten dela baserritik ateratzen den etekin murrizta, eta horrenbestean, tira. Baserriko lanari soilik emanda, aldiz, gaur egun bizimodua ateratzen oso zaila dela esaten du.

14. Heriotza asko denbora gutxian

- **Erref:** ERR-031/024
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:54:38. **Bukatu:** 00:57:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Hogei urte betetzerako bost gorputz ikusi zituen Pilarrek etiketik ateratzen, hamar urteren gora-beheran. Kolore beltzeko arropak jantziz adierazten zen hildakoekiko dolua: lutoa.

15. Goiz jaikitzen ohitua eta siesta gutxi egindakoa

- **Erref:** ERR-031/025
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:57:12. **Bukatu:** 01:00:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Zamalbiden eskurago izanagatik ere, goizeko seietako meza entzutera jaisten zen Pilar, Erreteriarra, etxeko "martxak" hala eskatzen baitzuen. Goiz ibiltzera ohitua izanaz gainera, siesta gutxi egindakoa da Pilar. Izan ere, zerbitzari lanak eginda bizi izan da Oleta baserrian, hamar urte zituela Ibarratik

Errenteriara bidali zutenetik. Hilabeteen bost duro eta eguneroko aterpea eta jatekoaren truke aritzen zen lanean. Behinola, aurreratutako diru guztia atera omen zuen aurrezki kutxatik gabardina bat erosteko, eta batere gabe geratu omen zen.

Beriain Taberna, Pilar | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com